


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2013ko azaroa

Euskal AEko industri jarduera %1,8 gutxitu zen 2013ko azaroan

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2013ko urriarekin alderatuta, %1,5 gutxitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2013ko azaroan %1,8 gutxitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2012ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %1,5 gutxitu zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2013ko urriarekin alderatuta.



2013ko azaroko indizean, 2012koaren aldean: Energia %-15,1, Kontsumoko ondasunak %-5,7 (iraunkorak %-16,9, ez-iraunkorak askoz gutxiago, %-0,7). Ekipo-ondasunak %0,3 gehitu dira eta Bitarteko ondasunak %2,8

Hil arteko aldaketa, 2013ko azaroa urriaren aldean, positiboa izan da Energian, %2,7 eta Bitarteko ondasunetan, %0,2. Ekipo ondasunak %4,9 jaitsi dira, eta Kontsumo-ondasunak %1,0. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorak %1,6 jaitsi dira eta Kontsumo-ondasun iraunkorak %0,6 gehitu.

Urte artean, euskal industriako sektore handien artean, hauek hazi dira 2013ko azaroan: Garraio materiala %6,9, Elikadura industriak, edariak eta tabakoa %1,9, Metalurgia eta metalezko produktuak %0,8 eta Makineria eta ekipoa %0,4.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	0,8
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-7,5
09 - Kautxua eta plastikoak	-3,7
13 - Makineria eta tresneria	0,4
14 - Garraio-materiala	6,9
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	1,9
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-13,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-4,7

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Material eta ekipo elektrikoan urte arteko %13,2ko jaitsiera dago; Energia elektriko, gas eta lurrunean %7,5ekoa; Zura, papera eta arte grafikoetan %4,7koa.

Azaroko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban (%1,4), eta Gipuzkoan (%0,4); negatiboa Bizkaian (%-5,8). Hil artekoa negatiboa izan da hiruretan: Gipuzkoan %2,3 jaitsi da, Araban %1,4; Bizkaian %0,6, 2013ko urriaren aldean.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hazkunde-tasak. 2013 azaroa. Behin-behineko datuak

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Aza2013 / Aza2012	M(Aza2013) / M(Aza2012)*	Aza2013 / Urr2013	Urr2013 / Ira2013
Indize orokorra				
Euskal AE	-1,8	-3,4	-1,5	1,0
Araba/Álava	1,4	-3,3	-1,4	4,0
Bizkaia	-5,8	-4,2	-0,6	-2,8
Gipuzkoa	0,4	-2,6	-2,3	3,2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-5,7	-5,2	-1,0	-0,7
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-16,9	-9,8	0,6	-9,3
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,7	-3,2	-1,6	3,0
Ekipo-ondasunak	0,3	-3,7	-4,9	4,7
Bitarteko ondasunak	2,8	-2,9	0,2	0,9
Energia	-15,1	-1,6	2,7	-5,5

(*) 2013ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2012ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua